

Erref.: FMR / Legelari aholkularia

GAIA: ERABAKI-PROPOSAMENA, PLAZA HUTSETARAKO EDO ERRELEBO-KONTRATUETARAKO DEIAK FORMALIZATZEKO, COVID-19AK ERAGINDAKO OSASUN-KRISIAREN ESPARRUAN, LAN-POLTSAK KUDEATZEKO IRIZPIDEAK ALDI BATERAKO ETENDA DAUDEN BITARTEAN.

Gobernu Batzordearen 2020ko martxoaren 7ko erabaki baten bidez, COVID-19ak sortutako pandemia dela-eta, Erakundearen aldi baterako laneko poltsak osatzen dituzten pertsonen lan-kontratuatarako egindako deiak laguntza-zentro bakoitzaren arabera egitea xedatu zen, salbuespen gisa eta behin-behinekoz, eta, ondorioz, kontratatu berrietan, lehenengoan deitzen zitzairen lantokirako kontratatuko zirela, eta irizpide bakarra izango zela deien ausazkotasan berezia. Hau da, pertsona horiek lanean ari ziren lantokietarako deituko zitzaizela aurrerantzean, eta, kontratu berria egin behar zitzaizaien kasuan, joaten ziren lantoki horretan lan egiteko kontratatuko zirela handik aurrera.

Ildo beretik, ezarri zen ezin izango zirela egin plaza hutsak betetzeko bitarteko lan-kontratuak edo antzekoak, eta, haien ordean, behin-behinekoz, zeregin-pilaketako kontratuak egingo zirela lege ezarritako gehieneko eperako (sei -6- hilabete). Horretarako, ahalmena eman zitzaion gerente andreari, erabakia behar bezala betearazteko beharrezkoak ziren neurri guztiak har zitzaizkien, gaixotasunaren bilakaera kontuan hartuta.

Bada, gaur egun, pandemia horrek eragindako osasun-krisia desagertu ez bada ere, indargabetu egin dira Gobernu Zentralak eta Eusko Jaurlaritzak, hurrenez hurren, deklaraturako alarma-egoera eta osasun-larrialdia. Hala, gaixotasunaren bilakaera positiboaren ondorioz, arintze-faseak bete dira normaltasun berria deitutakoari ekiteko.

Egoera horretan eta azaldutako inguruabarrak kontuan hartuta, egokitu egin behar da erabaki horren aplikazioa, egoera berriaren arabera doitzeko. Izan ere, erabaki hori ona izan arren birusa kontrolatzeko eta laguntza-langileak eta erabiltzaileak babesteko, zenbait disfuntzio izan dira, eta orain egokitzeko aukera dago.

Batetik, zerrendak zentroka konfiguratu direnez, pertsona batzuek kontratu gutxiago izan dituzte errota gutxi egon delako, eta, ondorioz, kanpotik zetorkien egoera batean izan dira halabeharrez. Bestetik, orain ez da eragozpenik ikusten plaza hutsak eta errelebo-kontratuak modu arautuan betetzeko, langileei kasu bakoitzean dagokien eskubidea errespetatuta.

Bada, neurri hauek aipaturako erabakiaren aplikazioa egokitzeko erabiliko dira, lan-poltsak kudeatzeko irizpideak berriro indarrean jarri arte. Erakundeko ordezkariak sozialari Negoziazio Mahaiaren ekainaren 24ko bileran eman zitzaion neurri hauek hartu izanaren berri.

Adierazitakoa oinarri eta Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen estatutuak aldatzen dituen maiatzaren 30eko 4/2001 Foru Arauaren 9. artikuluan eta Gobernu Batzordearen 2020ko martxoaren 7ko Erabakian xedatutakoarekin bat, gerenteari dagokio ebazpen hau ematea,



EBAZPENA

Lehenengoa.- Baimena ematea langileen kontratazio arauturako, plaza hutsak betetzeko eta/edo errelebo kontratuak egiteko.

Bigarrena.- Baimena ematea, zentro bateko lan-poltsan egoteagatik, hamabost (15) egunetik gorako epean deituak izan ez diren langileak kontratatzeko. Horretarako, interesdunek dagokion kategoriako zerrenda orokorrera pasatu nahi dutela adierazi beharko dute, erantsitako eskabide-ereduaren bitartez.

Hirugarrena.- Ebazpen honek beherago adierazitako egunean bertan sortuko ditu ondorioak, GUFren iragarki-oholean eta web-orrian argitaratzen den eguna gorabehera.

Bilbo, 2020ko ekainaren 25a

GUFE-REN GERENTEA

Sin.: Nerea Urien Azpitarte

A handwritten signature in blue ink, appearing to read 'Nerea Urien Azpitarte', written over a light blue rectangular background.

<i>Izen-abizenak / Nombre y apellidos</i>	<i>Nomina zk. / N° nómina</i>
<i>Telefonoa/ Teléfono</i>	<i>E-maila / E-mail</i>
<i>Zentroa-Etxebizitza / Centro-Hogar</i>	<i>Kategoria / Categoría</i>
<i>Azken kontratuaren amaiera data / Fecha finalización último contrato</i>	

Eskaera / Solicita

Kategoriaren zerrenda orokorrean sartzea, ordezkapen-kontratuatarako, 15 egun baino gehiago zentroaren/etxebizitzaren zerrendatik kontratatu gabe egon ondoren.

La incorporación, para contratos de sustitución, al listado general de la categoría tras permanecer por espacio superior a 15 días sin haber sido contratada/o del listado de centro/hogar.

Lekua / Lugar Urtea / Año Hilabetea / Mes Eguna / Día

*Eskabide hau sinatuta, interesdunak baimen espresua ematen du
Pertsonak Zuzentzeko Departamentuaren kudeaketarako
beharrezkoak diren datu pertsonalen tratamendurako.*

Con la firma de la presente solicitud la persona interesada consiente expresamente el tratamiento de los datos personales necesarios para la gestión del Departamento de Dirección de Personas.

(Sinadura / Firma)